

Fraga eta Seguritate Soziala

Deia, 1983-07-25.

Felipe Gonzalez presidenteak gure lehendakaria hartu aurretik, *Fraga* errezibitu zuen.

Moncloan Fraga eta Gonzalezen artean hitzegin zena ez dakit, ez naiz azti. Sorgin, gutxiago.

Bi pertsonaia horiek *hitzegin zutenaren berri Fragak esandakoa heldu zaigu prentsa bidez*. Bat, espainolen presidentearekin eta honek ekonomiaz erabaki dituenaz ados dagoela (kontuz langileok!) eta Euskal Herrian izaten ari den esku gogor eta beroaz ere baietz (ez da berria!); eta, batez ere, gai irristakor bat aipatu du: *Seguritate Soziala*.

Dena konfirmatzen da ba: Sozialistek irabazi zutenaz gero sortu zen Fraga eta Feliperen arteko ezkongai aldia aurrera doala; venezolarrek badute egokiera honetarako esaldia: "Ellos son blancos y se entienden".

Gai hau argitzeko, Kanpionek¹ Errenterian 1920an eman zuen hitzaldian erakutsi zuen silogismoaz baliatzea iruditzen zait egokien: "En Francia hay vascos que no son españoles; en España, vascos que no son franceses. Luego, lo característico y esencial de ellos, no estriba en la nota variable del hispanismo y del francesismo, sino en la constante del vasquismo. El vasco-español no es francés, pero es vasco; el vasco-francés no es español, pero es vasco. Luego el vasco no es español, ni francés, es vasco". Nik, neuk, joko beraz baliaturik zera esango nuke: Bat, Espainian bada PSOEkoa ez den espainolistarik, eta baita *franguista*, ez den espainolistarik ere; bi: baina ez da espainolista ez den PSOEkorik eta ez da espainolista ez den *franguista*-rik ere; hemendik hirugarren proposamentua: Bereizgarri eta esentziazko elkarrekikoa ez da bariante den franguista edo psolista izatea, orokorra eta iraunkorra den *espainolista* baino.

Baina zertan da nire ikuspuntuak *Seguritate Soziala*?

Instituzio hau hemen da euskaldunen eskuetan *arriskugarri*. Zergatik? Fraga eta Gonzalezek badakite orain artekoetan baino esku zikinagoetan ezin direla diru horiek eror; aitzitik, horiek dakitena da hemen esku garbiagoak erabiliko luketeela, eta hori *ikusi egingo litzakeela!*

Garbitasunaren beldur dira politiko horiek, beraz!

Hurbiltzen ari diren hauteskundeetarako propaganda-gai polita guretzat! Etorkinak garbitasun eta dignitate piska baten bila etorriak direnez, badakite bi gauza horiek Eusko Jaurlaritzak garantizatuko lizkiotekeela ondoen.

¹ Kanpionen gaiak eraginik izan du; horien artean, Errenteriako batzokiaren zabaltze jaietan 1920an nafar ospatsu honek egin zuen hitzaldiaren testoa bidali dit Sabin Lasak.